



Monica Iglesias eta David Vallejo abadiñarrek erradiazioak kaltetufako neskato bielorrusiar bat harreran hartu zuten, lehenengoz, orain hiru urte. Esperientziagaz pozarren daude, eta umea udan zein gabonetan ekartzen segituko dute aurrerantzean • 2-3

" Maryna udan itzuliko da Bielorrusiatik; gogo handia dugu bera ikusteko"

"Kameralari lanetan hasi nintzenean, emakume gutxi zegoen; orain gehiago gara"



Jone Novo Olea
'Pikuak' websaileko kidea • 16

Durangoko ertzain etxearen aurrean "eskubide linguistiko eta zibilak" aldarrikatu dituzte

Durango I Durangar batek salatu du greba egunean ertzainek kolpatu egin zutela eta hizkuntza eskubidea urratu ziotela. • 4



Bide segurtasuna hobetzeko lanak egingo dituzte N-634 errepidean

Zornotza I San Antonio auzoan, errepidearen alde biak lotuko dituen goi-pasabidea eta errotonda bat egingo dituzte. Foru Aldundiak eta Zornotzako Udalak egingo dituzte lanak. **10. orrialdea**



Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofiziela de Idiomas

2020ko matrikula librea ZABALIK

On-line

Otsailaren 3tik
Otsailaren 19ko 13:00etara arte

36,18€

www.eoidurangoeo.hezkuntza.net
94 620 33 42 – 94 681 66 45





“Maryna harreran hartzeak gauza txikiak baloratzen erakutsi digu, Euskal Herrian zortekoak garela ikusten”

Monica Iglesias Legidok eta David Vallejo Canterok Bielorrusiako ume bat hartu dute etxean: Maryna Harbachenka hamar urteko haurra. Txernobilgo istripuaren erradiazioak kaltetutako neskatua da Maryna, eta Abadiñon pasatu ditu azken urteotako gabonak eta udak

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Iglesiasek eta Vallejok berehala uxatu zituzten hasierako kezkek. Haien seme Enekok ere primeran hartu zuen Bielorrusiatik ailegatutako lagun berriaren etorrera. Familia abadiñarrak gorputzeko erradiazio maila jaisten lagundu dio Maryna Harbachenka umeari, eta uda zein gabon goxoak pasatu dituzte denek elkarregaz. Hain zuzen ere, uda noiz helduko desiratzen dago familia abadiñarra, berrito ere Marynagaz batzeko. Bikarte elkar-teraren bitartez hartu zuten harreran Bielorrusiako neskatua.

Zelan erabaki zenuten proiektuagaz bat egitea?

Monica Iglesias: Bikarte elkar-teraren informazio bat irakurri genuen prentsan. Oker ez banago, ANBOTOn irakurri genuen. Posta elektronikoko bat bidali genuen hara, eta elkarrengaz hartu-emanetan ipini ginen. Umeak etxean hartzeko programa hark zelan funtzionatzen zuen galdetu genien, izan ere, ez genuen halako zerbait egiten zuen beste inoren erreferentziarik. Bikarteko jendeak nondik norako guztiak azaldu zizkigun. Txernobilgo istripuaren ondorioz, erradiazioak kaltetutako umei laguntzen diete. Errusian eta Bielorrusian aritzen dira batez ere.

Erraza izan al zen ume bat zuenean aterpetzeko erabakia hartzea?

M.I.: Denboratxo eman genuen pentsatzen, buelta asko eman genizkion kontuari. Ez genekien ondo erradiazioaren kontua zertan zetzan. Umeak erradiazioak kaltetuta daude. Erradiazio maila bat dute gorputzean, baina ez genekien hori ingurukoei transmititzea posible zen ala ez. Eneko gure semea etxean izanda, pentsatu genuen bera ere kaltetu zezakeela erradiazioak. Bagenuen kezka hori. Beraz, Gallartara joan ginen, Bikarte elkar-teraren egoitzara, eta han dena azaldu ziguten, zalan-zak argitu zizkiguten eta aurrera egitea erabaki genuen.

“**Aurtengo udan ere etortzekoa da Maryna. Gogo handia dugu bera berriro ikusteko**”

Zelakoa izan zen lehenengo kontak-tua Maryna Harbachenka umeagaz?

D.V.: Lehenengo aldiari, normala den moduan, ikaratuta etorri zen. Zazpi urteagaz jaso genuen lehe-

“**Erradiazioaren kezka genuen, baina Bikarte elkar-terak zalan-zak guztiak argitu zizkigun**”

nengo aldi horretan, eta pentsa! Adin horregaz bidaltzen bazaituzte ezagutzen ez duzun etxe batera... Auskalo zer pentsatuko zuen! Hasieran oso isila zen; inguru al-daketak eragin egin zion, normala den moduan.

M.I.: Ezagutu genuen lehenengo egunean, ni bakarrik egon nintzen. Normalean, berandu heltzen dira Loiuko aireportura. Orduan, hurrengo goizera arte itxaron behar izan zuen gure familia osorik ezagutzeko. Gainera, kontuan hartu behar da hizkuntza jakin barik beti dela zaila hartu-eman bat hastea

Hasierako zailtasunak atzean utzi zituzten. Izan ere, Maryna hainbat bider bueltatu da zuenera.

M.I.: Bost egonaldi egin ditu gugaz. 2017ko gabonetan izan zen lehenengo. Gero, 2018ko udan eta gabonetan, eta baita 2019ko udan eta gabonetan ere. Aurtengo udan ere

etortzekoa da. Gogo handia dugu Maryna berriro ikusteko.

Zenbat denbora egoten da zuekin egonaldi bakoitzean?

M.I.: Udan ia hiru hilabete igarotzen ditu, hile bi eta erdi inguru. Gabonetan, hilabete.

Eta denbora honetan guztian, zelan joan da etxeko hartu-eman?

D.V.: Orokorrean, oso ondo. Hasiarako zailtasunak gainditu egiten dira, han familia eta bizimodu ezegonkor batean bizitzetik datorrelako.

M.I.: Hango hamar urteko umeek

“
Hango hamar urteko umeek ez dute hemengo hamar urteko umeen egunerokotasun berdina”

ez dute hemengo hamar urteko umeen egunerokotasun berdina: etxean ardura gehiago dute, euren neba-arrebak zaintzen dituzte... Beraz, hona etortzen denean ume bihurtzen da berriro. Etxean lehenengoz gosaldutuzuean, gogoratzen dut garbiketarako tresnak hartu zituela eta etxea txukuntzeari ekin zioela. Nik esan nion ez zuela halakorik egin behar, hona oporrak pasatzera etorri zela. Hori atoa ikasi zuen! (barrez).

Zelako hartu-eman dute Eneko eta Marynak?

M.I.: Ederto batean konpontzen dira. Lagun handiak egin dira biak. Pentsa, Maryna joaten den une hori gogor-gogorra egiten da. Eneko, gainera, etxean betiko geratuko den arreba eskatzen hasi zaigu!

Zer gustatzen zaio Marynari Euskal Herritik?

M.I.: Gauza asko egin ditugu beragaz. Gallartan egon ginen, Pasaian (Gipuzkoa) ere bai, eta beste hainbat leku turistiko eta interesgarri bisitatzen. Maryna txundituta gelditzen da Marijaiagaz eta Olentzerogaz. Bestalde, Bielorrusian ez dago itsasorik, eta ez da Euskal Herria bezain menditsua ere. Gustuko ditu itsasoa eta mendia.

Izan duzue hartu-emanik edo bitartekaritza Marynaren jatorrizko familiagaz?

M.I.: Ez. Lan hori Bikartek egiten du. Bielorrusiako eta Errusiako erradiazio guneetara doaz, herrietara, eta beharizana duten haurrak ezagutzen dituzte. Zerrenda bat egiten dute, erradiazioa neurtuz, familien egoera aztertuz eta abar. Horrela, beharizana handiena duen umetik hasi, eta sailkapen zerrenda bat egiten dute.

Zer eman dizue esperientzia honek?

M.I.: Gauza txikiak baloratzen erakutsi digu, eta Euskal Herrian zelako zortea dugun ikusten, gure gatazkak ditugun arren. Gauza batzuk automatikoki sartuta ditugu, horrela izan beharko

“
Eneko gure semea eta Maryna ederto batean konpontzen dira; lagun handiak egin dira biak”

balira lez, eta ez da beti horrela.

Animatuko zenukete jendea dinamika honetan batzera?

D.V.: Bai, jakina. Gauza gutxi eginda, asko da umeentzat, eta zalantzaren bat duenak gugaz berba egin dezake, zalantza horiek argitzeko.



Vallejo aita-semeak eta Maryna, familiak Landara (Uribarri-Ganboako urtegia, Araba) egindako txango egun batean.



Iglesias, bere seme Eneko, Maryna eta familiaren lagun bat, Gabonetan egindako irteera batean.



Bielorrusiako lurren laurdena gutxi gorabehera erradiazioak kutsatuta dago.

Erradiazioak kutsatutako ume baten bizi-itxaropena urte bian luzatu daiteke kutsatu bako inguru batean 45 egun egiten baditu

EKAITZ HERRERA

HBOren *Chernobyl* telesail arrakatsak berriro ere gogora ekarri du Txernobilgo istripu nuklearrak utzitakoa, hura gertatu eta 20 urtera. Fikzionatutako istorioetatik, baina, gutxi du erradiazioak kalte-tutako herritarren errealitateak. Izan ere, Txernobilgo zentral nuklearra Ukrainan kokatuta egon arren, Bielorrusia izan zen erradiazio ez-tandaren kalteak gehien jasan zituen herrialdea. Svetlana

Aleksievitx idazle bielorrusiar eta 2015eko literaturaren nobel sariak *Voices of Chernobyl* (*Txernobilgo aho-tsak*) liburuan diotenaren arabera, gutxi gorabehera Bielorrusiako lurraren laurdena dago erradiazioak kutsatuta. Milaka herritarrek ordura arte ezezaguna zitzaizen bizimodu berri bat hasi zuten istripu nuklearraren ondorengo egunean. Erradiazioak milaka urtean iraungo du kutsatutako lur, baso, erreka zein etxeko ur-txorrotetan.

Testuinguru horretan ulertu behar da Bikarte elkarteak eta Abadiñoko Iglesias-Vallejo familiak egiten duten ekarpena: erradiazio indize altuak dituzten ume eta gazteak harreraren hartuta, haien bizi-itxaropena handitzea lortzen dute. Munduko Osasun Erakundearen datu bat da horren isla: erradiazioak kutsatutako ume baten bizi-itxaropena urte bian luzatu daiteke erradiazio bako gunean 45 egun inguru egiten baditu.

Durangoko ertzain etxearen aurrean "eskubide linguistiko eta zibilak" aldarrikatu dituzte, greba eguneko jazoeraren harira

Durangar batek salatu du ertzainek kolpatu egin zutela eta, gainera, ez zirela gai izan berari euskaraz berba egiteko

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Urtarrilaren 30eko greba egunean, liskar bat jazo zen pikete informatibo baten eta ertzainen artean, Durangoko Aramotz auzoan. Piketearen zebilen Endika Blanco durangarrak poliziaren gehiegikeria salatu zuen sare sozialetan. Batetik, hainbat lagun kolpatu zituztela azaldu zuen, eta, bestetik, "hizkuntza eskubidea urratu" zitzaioela. Horren guztiaren harira, Euskal Herrian Euskarak kontzentrazioa deitu zuen eguazten arratsaldean Durangoko ertzain etxearen aurrean, *Euskaldunoi erasorik ez! Hizkuntza eskubideak errespetatu* lelopean.

Liskarraren kronika

Blancok sare sozialetan kontatutakoaren arabera, greba egunean herri pikete informatiboekin kalean greba aldarrikatzen zebilen Aramotz auzoan, eta "armaz jositako" poliziak agertu ziren. Herri piketea "inguratu" zutela eta "arrazoirik eman barik" grebalariak bertan egotera "behartu" zituztela azaldu

zuen. Poliziek hainbat lagun kolpatu zituztela azaldu zuen, tartean, bera; "amorrur harrigarri eta behin eta berriro", esan zuenez.

Gainera, Blancori identifikatzeko eskatu zioten eta prozesu horretan poliziak bere hizkuntza eskubideak urratu zituela salatu zuen: "Gaztelaniaz zuzendu zitzaizdan ertzain horri euskaraz egiteko eskatu, eta, horretarako gai ez izateaz gainera, ertzain kide batek zergatik identifikatu ninduen galdetu zionean, mehatxatu egin nuela erantzun zion".

Elkartasun mezuak

Gertaeren kontakizun publiko hori egin zuenetik, elkartasun mezu asko jaso ditu eta "oso eskertuta" dagoela adierazi du. "Sare sozialetan zein handik kanpora, lagunengandik, ezezagunengandik, lankideengandik zein ikasleengandik jasotako elkartasuna hunkigarria izan da niretzat. Jasotako berotasun horrek borrokan jarraitzeko indarra ematen du", adierazi dio



Eguaztenean ertzain etxearen aurrean egindako kontzentrazioko irudia.

Endika Blanco: "Hizkuntza politika burujabe eta erradikalak bultzatu behar ditugula uste dut"

ANBOTOri. Hizkuntza eskubideak ere aldarrikatu gura izan ditu. "Urraketak nonahi eta noiznahi gertatzen dira, eta oraingoan neuri egokitu zait", gaineratu du. Egoera hori konpontzeko, administrazioa "osorik" euskaldundu behar dela deritza. "Hizkuntza politika buru-

jabe eta erradikalak bultzatu behar ditugula uste dut", azaldu du.

Greba egun hartan identifikatu egin zuten Blanco, baina oraingoz ez zaio heldu salaketarik edo antzerakorik. "Injustizia hutsa izango litzatekeela kontuan hartuta, ezer ez heltzea espero dut", dio.



Merkealdi sasoia ez da amaitu oraindino.

Durangoko denden erdiek baino gehiagok merkealdian gaztelaniara jo dutela dio Berbarok

52 dendak gaztelaniaz, 36k ele bitan eta 12k euskara hutsean iragarri dituzte merkealdiak

DURANGO • JONE GUENETXEA

Aurten ere, Berbarok euskara elkarteak Durangoko erakusleihoak aztertu ditu urtarileko merkealdian, komertzio hauek merkealdia iragartzeko aukeratutako hizkuntza zein izan den jakiteko. Durangon komertziorik gehien duten sei gune aztertu dituzte: Alde Zaharra, Montevideo eta Ezkurdi, Ermodo kalea, Askatasun etorbidea, Fray Juan de Zumarraga kalea

eta Landako. Guztira, 100 denda behatu dituzte eta hau izan da jasotako emaitza: 52 dendak gaztelania hutsean iragarri zuten merkealdia, 36 dendak ele bitan, eta soilik 12k euskara hutsean.

Berbarok dioenez, "iazko datuekin alderatuta, gauza ez da asko aldatu: euskara hutsean dauden denden kopurua apur bat hazi da, baina baita gaztelania hutsean daudenena ere, %50eko zifra gaindituz".

Berbarok balorazio ezkorra egin du: "Ikusten denez, euskararen egoera oso kaskarra da merkealdi sasoian gure herrian, eta bigarren mailako hizkuntza da".

Egoerari buelta eman guran, Durangoko Udalagaz eta Dendak Bai elkarteagaz hartu-emanen neurri zehatzak hartzeko proposamena egin du Berbarok. Elkarteko kideek diotenez, batez ere dendei euskaraz errotulatzeko baliabideak ematea da helburua.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko otsailaren 7a
18. urtea - 793. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

135 neurri "zehatz eta egingarrik" osatuko dute Durangoko gobernu plana

2023ra arteko gobernu plana herritarren eta eragileen aurrean aurkeztuko dute, otsailaren 11n, 19:00etan, San Agustin kulturgunean egitekoa den ekitaldian

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko udal gobernu taldeak labetik ateratzeko zorian du hurrengo urteetarako "iparrorrazta" izango den gobernu plana. Oraingoz ez dute aurreratu zeintzuk izango diren hemendik eta 2023ra arteko ekintzak, baina, adierazi dutenez, guztira, 135 neurri "zehatz eta egingarrik" osatuko dute gobernu plana.

Plana jendaurrean aurkezteko, ekitaldi publiko bat egingo dute. Otsailaren 11n izango

da, San Agustin kulturgunean, 19:00etan. Gobernu taldeko kideek Durangoko herritarrak eta eragileak deitu dituzte aurkezpen ekitaldian parte hartzera. "Denon artean Durango hobe eraikitzeak aukera dugu, eta, beraz, horretan sakonduko dugu", diote.

Neurriek Durango "demokratikagoa, justuagoa, orekatuagoa, garbiagoa, euskaldunagoa, feministagoa eta inklusiboagoa" lortzea dute helburu.



Aritz Bravo, Julian Rios, Ima Garrastatxu eta Jorge Varela udal ordezkariak.

Mugherri, herrigintzako esperientziak ezagutu eta aktibatzekeo dinamika

Durangaldeko "ezker independentistaren eremu zabaleko kide ugari" sortu dute dinamika



Mugherri kideak.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Durangaldeko ezker independentistaren eremu zabaleko kide ugari Mugherri dinamika bultzatu dute. Eskualdeko esperientziak ezagutu, saretu eta aktibatzekeo beharizana ondorioztatuta sortu dute egitasmoa. Mugherri herri mugimenduen garrantzia azpimarratu du. "Hamarkadetan zehar, Euskal Herriko mugimendu herritarra ezinbestekoa izan da herri lez ditugun erronkei heltzeko", esan dute. Gaineratu dutenez, "bizitzak eta lurak suntsitzen ari den neoliberalismoaren aurrean, etorkizun aske eta antikapitalista baten alde" eragin gura du Mugherri.

Durangon jardunaldi bat egingo dute, ekitaldi nagusi batez lagunduta, apirilaren 4an

Dinamikaren sortzaileek jakinarazi dutenez, herrigintzan lanean dabilzan eskualdeko hainbat lagun elkartzeko hasi ziren orain hilabete batzuk, egungo erronkei erantzun kolektibo bat topatzeko.

Apirilaren 4an, jardunaldia
Azaldu dute "aniztasunetik" eta

"parte-hartzetik" ikasten aritu eta gero, apirilaren 4an ereingo dutela "lehenengo hazia".

Durangon jardunaldi bat egingo dute, ekitaldi nagusi batez lagunduta. Oraingoz, ez dute jardunaldiaren egitarau osoa jakinarazi, baina aurreratu dute, besteak beste, solasaldiak eta eztabaidak egongo direla. "Lau ardatz nagusitan banatuko dira: jatorri eta kultura aniztasuna, hezkuntza, elikadura burujabetza eta herri partaidetza". Durangaldean "pil-pilean" dauden gaiak direla azaldu du Mugherri, eta "aktibista ugari" dabilela lanean, "bakoitza bere esparrutik" eragiten.

Iurretarek proiekturik interesgarrienak bozkatuko dituzte

2020ko aurrekontu parte-hartzaileetarako prozesua fase bitan egingo dute aurten, aurrerapauso bat emanda

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak 2020ko aurrekontu parte-hartzaileetarako prozesua martxan ipini berri du. Aurten, gainera, aurrerapauso bat eman eta fase bitan garatuko da prozesu hori, iurretarek proiekturik interesgarrienak bozkatzekeo aukera emanez. 50.000 euroko aurrekontua lotu dute.

Udal eskumenei lotutako be-
rezko proposamenak jasoko dituzte orain. Iurretarek euren ekarpenak egiteko aukera dute, otsailaren 16ra bitartean. Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ), kultur etxean edo udal-
txean ipinitako postontzietan egin daiteke hori; online bidez ere bai. Batutako proposamenen bi-

deragarritasun teknikoa eta ekonomikoa aztertuko dute gero, eta baldintzak betetzen dituztenak 2. fasera igaroko dira. Orduan, herritarrek interesgarrienak diren proiektuak aukeratu ahal izango dituzte. Iurretan erroldatutako 16 urtetik gorako herritarrek izango dute bozkatzekeo aukera.

Iurretarek otsailaren 16ra bitartean dute aukera euren ekarpenak egiteko

Udalak kale izendegiaren 30 plaka berri ditu oraintsu (7.300 euro). 2019ko aurrekontu parte-hartzaileetako ekarpenetako bat izan da.

Udalak ikerketa beka bat martxan ipiniko du Garaiko toponimia mapa berritzeko

Egindako azken toponimia mapa 2008koa da. Hainbat akats ditu eta zaharkituta gelditu da



Toponimia ikerketak jatorrizko baserri, auzo, bide eta erreka izenak jaso gura ditu.

GARAI • EKAITZ HERRERA

Toponimia ikerketa baten bitartez, Garaiko etxe, baserri, mendi, bide, erreka eta auzoen izendegia "jaso, zaindu eta normalizatu" gura du udalak. Izan ere, indarrean dauden toponimia mapa 2008koa da. "Zenbait akats ditu", eta, ondorioz, "zaharkituta" gelditu da, udal iturriek diotenez. Ikerketa beka aurrerago aurrekontuen diru partidetako bat hartuko du, eta, trukean, onuradunak 2.250 euro jasoko ditu. Edozein norbanako aurkeztu daiteke beka jasotzeko, betiere deialdian markatutako baldintzak betetzen baditu. Baldintzak Garaiko Udalaren webgunean ipiniko dituzte, besteak beste. Toponimia mapa berritua 2021ean argitaratu gura dute.

Carmelo Bernaola musikagile otxandiarraren bizitza jaso eta sormen lana aztertzen duen liburu berria aurkeztu dute

Daniel Moro musikologoak musikari otxandiarraren inguruan egindako tesia hartu du abiapuntutzat liburua egituratzeko orduan



Daniel Moro, liburua aurkezteko Bilbon egin zen aurkezpenean.

zituen erremintak ikertu ditut eta bere obra akademikoaren ikuspegi transbertsal bat ematen ahalegin-du naiz", azaldu du.

Liburua hiru ataletan banatuta dago. Lehenengoa biografikoa da gehienbat, bigarrenean obraren "analisi sistematikoa" egiten du eta hirugarrena Bernaolak hedabideetan izan zuen oihartzunari eskaini dio. Mororen ustez, Bernaolak merezi zuen errekonozimendua

Daniel Moro: "Carmelo Bernaolak konposatzeko erabiltzen zituen erremintak ikertu ditut"

izan zuen alde horretatik, batez ere 1959an Erroma Saria jaso zuenetik aurrera. Saria jaso eta gero, hiru bat urte eman zituen Italian, bere jakintza areagotzen. Madrilerantz itzuli zenean (Madrilen bizi zen 1951tik), bere figurak beste hedadura bat hartu zuen. "Ikuspegi akademikotik zein gizarte ikuspegitik oso ezaguna bihurtu zen", azaldu du. Abangoardiako musikaririk prestigioaren artean sartu zuten, *51ko belaunaldia* lez ezagutzen den taldearen barruan, eta bere gaineko hainbat biografia argitaratu ziren.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Daniel Moro musikologoak Carmelo Bernaola musikagilearen (Otxandio, 1929-2002) liburu berri bat argitaratu du, EHUren, Musikeraren eta ERESBIL musikaren eskual artxiboaren arteko lankidetzaz hitzarmenari eskerrak.

Morok aspaldiko hartu-ema-na du Bernaolaren musikagaz, Oviedoko Unibertsitateko tesia bere inguruan egin zuen eta. Hain zuzen ere, tesi horretatik abiatu da *El compositor Carmelo Bernaola, Una trayectoria en la vanguardia española* liburua kaleratzeko.

Bernaola XX. mendeko sortzaile-rik garrantzitsuenetakoa izan zen eta bere gaineko hainbat biografia argitaratu dira, batez ere 70eko hamarkadatik aurrera. Baina lan horiek "osatu bakoak" dira Mororen ustez, "oraindino beste urte askoan sortzen jarraitu zuen eta". Bestalde,

ikerketak horiek Bernaolaren biografian zentratzen ziren batez ere. Horiek horrela, Morok, Bernaolaren bizitzako kontuak alde batera utzi barik, musikagile otxandiarraren sortzaile ikuspegian sakondu gura izan du bere lanean. "Bernaolak konposatzeko erabiltzen

Mañariak eta Izurtzak elektrizitatea kontratua elkarregaz esleitzeko akordioa adostu dute

Prezio lehiakorragoak bilatzeaz gainera, Aldundiko Kontratazio Zentralak ahalbidetzen duena baino konkurrentzia zabalagoa bermatu gura dute, enpresa txiki eta ertainei begira

MAÑARIA/IZURTTA • JOSEBA DERTEANO

Mañariak eta Izurtzak elkarregaz esleitzeko dute hurrengo elektrizitate kontratua. Mañarian, joan zen asteko udalbatzarrean eman zioten baietza akordioari, aho batez. Urtebeterako iraupena izango du, bigarren urte baterako luzagarria izango delarik, eta, lehiaketa publikoaren ondoren, esleipena ekain ingururako egiteko moduan egongo direla kalkulatu dute.

Argindarra elkarregaz esleitzea banan-banan esleitzea baino merkeagoa dela da erabakiaren arrazoi-tariko bat, baina ez bakarria. Izan ere, Bizkaiko Aldundiak ere eskaintzen du elektrizitatea prezio lehiakorrean jasotzeko aukera, 2016an abiatu zuen Kontratazio Zentralaren bitartez. Gura duten udal eta erakunde guztiak batu daitezke zentral horretara, eta handizkako salmenta-

ren filosofia dago oinarrian: zenbat eta bolumen handiagoa, orduan eta prezio lehiakorragoak eskaini ditzakete zentral elektrikoek.

Baina Mañariko eta Izurtzako udalen helburua, prezio lehiakorra bilatzeaz gainera, elektrizitate ekoizle txiki eta ertainei lehiaketara aurkeztu ahal izateko aukera bermatzea ere bada. "Argindar kontratua esleitzerakoan, ekoizle handiek bai-

no ez dute ahalmena Aldundiaren eskakizunetara aurkezteko. Ekoizle txiki eta ertainek, ostera, ez dute ahalmen hori baldintza horietara heltzeko. Beraz, argindar esleipena udaletik eginda, mota horretako ekoizleei ere lehiaketara aurkeztu ahal izateko aukera eman gura diegu", azaldu zuen Endika Jaio Gobernu Taldeko zinegotziak (EH Bildu) udalbatzarrean.



2020KO AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

50.000 €-ko aurrekontu partida hautatutako proiektuetarako

Otsailaren 3tik 16ra arte

MILA ESKER PARTE HARTZEAGATIK!!

Iurreta
Elezakete Udalak

berdeago

nature

Kontsumo arduratsuaren azoka

02/08

Otsailaren 8tik-9ra

Sarrera dohainik
Landako Gunea, Durango
www.berdeago.com

antolatzailea | organizador



babesleak | patrocinadores



Elorrioko kiroldegiaren etorkizuna eztabaida iturri izan da azkenengo osoko bilkuran

Elorrioko Udalak kiroldegiaren diagnostiko bat egingo du, zerbitzu honeguz zer egin erabakitzeko

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken osoko bilkuran, gobernu taldeak "kiroldegi berriaren proiektuagaz duen utzikeria" salatu zuen Elorrioko EAJk. EH Bilduko kideek, ostera, egungo kiroldegiaren diagnostiko bat egiten dabiltzala eta datuak esku artean dituztenean erabakiko dutela zer egin jakinarazi zuten.

Mikel Arruabarrena EAJren bozeramailea oso kritiko agertu zen: "Uste dugu diagnostikoa oso berandu datorrela eta ez dela momentua. Orain bost urte herri programan sartu zenuten, eta oraindino ez duzue egin. Gainera, kiroldegiaren gai honeguz bost urtean birbilgunean bueltaka zabilzate, eta ez dugu oharkabean pasatuko beste urte bat horrela pasatzea".

Diagnostikoaren garrantzia

Dani Palacios EH Bilduko zinegotziak diagnostikoa egitearen garrantzia azpimarratu zuen:



Lehendik dagoen kiroldegiagaz jarraitzea bideragarria den ikusiko du udalak.

"Diagnostikoa eginda ikusiko dugu zer den bideragarria, daukagun kiroldegia berritzea ala kiroldegi berria egitea". Hori dela-eta, aurtengo aurrekontuetan diru partida bat sartu dutela esan zuen, diagnostikoa egiteko izango dena. Horrez gainera, kiroldegiaren azterketa

Udalak "kiroldegi berriaren proiektuagaz duen utzikeria" salatu du Elorrioko EAJk

egin eta gero, eta datuak mahai gainean dituztela, herritarrei galdetu behar bazaie galdetu egingo dietela adierazi zuen Idoia Buruaga alkateak. "Ez dugu beldurrik herritarrei galdetzeko, eta erabaki dezatela eurek zer gura duten", amaitu zuen Buruagak.

Udaleko materialak eta instalazioak herritarren eskura ipiniko dituzte Elorrioren

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herriko elkarte, norbanako zein entitateek udal materialak maileguan hartzeko edo udal instalazioak herritarren eskura uzteko araudia landu eta onartu du Elorrioko Udalak.

Hauetxek dira herritarren eskura ipiniko dituzten materialak: mahaiak, taulak, astoak, jarlekuak, udaleko soinu ekipoa eta soinu ekipo eramangarria. Ohar bitartez jakinarazi dutenez, ikus-entzunezko materiala Elorrioko elkarte eta entitateei baino ez diete utziko, herrian egingo dituzten jardura kultural eta sozialetarako.

Instalazioei dagokienez, agertokia, karpa handia eta eskolako erabilera anitzeko gunea ipiniko dituzte herritarren eskura. Horiek ere elkarte eta entitateei baino ez dizkiete utziko, jardura kultural eta sozialetarako.

Udal materiala eta instalazioak erabili gura dituztenek aurretiaz aurkeztu beharko dituzte eskaera orriak, gutxienez hamar laneguneko epeagaz.

Hiri antolamendurako plan berria martxan da Atxondon

Azken osoko bilkuran, EAJko eta EH Bilduko zinegotziek jakinarazi zuten ados daudela plan berri bat egiteagaz

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Orain 11 urte, Atxondoko Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorra osotzeko lehenengo pausoa eman zuen. Hala ere, ezin izan dute planagaz aurrera egin, eta Atxondoko Udalak plan berri bat hasteko bideari ekin dio asteon. "Egun daukagun plana ezin daiteke egin; beraz, erabakirik onena plan berri bat egitea dela uste dugu", esan zuen bilkuran Gorka Garate EAJko zinegotziak.

EH Bilduko Jorge Jauregik plan berri bat egiteagaz ados daudela adierazi zuen. "Urte asko dira

Plan berria denen artean adostutakoa izatea gura dutela azaldu zuten EAJko kideek

plana egin zela, eta plana bidean geratu da. Gainera, herriko errealitatea ere aldatu egin da. Beraz, ondo ikusten dugu ", azaldu zuen Jauregik.

Bestalde, plan berria denen artean adostutakoa izatea gura dutela jakinarazi zuten EAJkoek.

Haurren aisialdira begirako txiki-txokoak martxan daude Mallabiko kultur etxean

Bost urtera arteko gunean askotariko liburuak daude irakurzaletasuna sustatzeko, eta 12 urtera artekoan psikomotrizitatea lantzeko jolasak egiten dituzte, besteak beste



Bost urtera artekoek zuzenduta dagoen gunea, liburutegian.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Haurren aisialdira begira gune bi egokitu dituzte Mallabiko kultur etxean. Bata iaz ipini zuten martxan, eta bestea urte berriagaz batera.

Liburutegian, beheko solairuan, 5 urtera arteko umeentzako gunea sortu zuten iaz, adin horri begirako hainbat altzari espazio batean atonduta. Bertan, askotariko jolasetan parte hartu dezakete umeek, eta liburuaz beteriko apalak ere badaude, irakurzaletasuna bultzatzeko. Gune hori astelehenetik

Gune bata zein bestea astelehenetik barikura egoten dira zabalik, kultur etxeko espazio banatan

barikura egoten da zabalik, arratsaldetan: 16:30etik 20:00etara, hain zuzen ere.

Goragoko solairua aurten zabaldu dute. 12 urtera arteko gazteei zuzenduta dago eta, besteak beste, psikomotrizitatea lantzeko jolasak

eta ekintzak egiten dituzte. Gune hori ere astelehenetik barikura egoten da zabalik. Kasu honetan, goizetan (10:00etatik 12:00etara) eta arratsaldetan (16:30etik 20:00etara).

Gune bata zein bestea, jolasgunea izatez gainera, gurasoen arteko hartu-eman sustatzeko gune egokia izan daiteke. Aldi berean, gurasoak eurak dira txiki-txokoaren funtzionamendu onaren gakoa, eta eurek zaintzen dute gune biziakidetzatza.



Hiri-Antolamendurako Plan Orokorra 11 urtean egon da geldirik.

"Amesten dugun jolastokia eraikitzen' proiekturako dirurik ez dagoela esatea aitzakia iruditzen zaigu; udalaren borondate falta dago"

Maiatzean udal gobernuan aldaketa izan zenetik, proiektua "geldi" dagoela salatu du Zaldibarko guraso talde batek

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Zaldibarko eskola publikoko patioa eta inguruko belargunea atontzeko, handitzeko eta haurren beharrezanetara egokitzeko asmoz, herriko hezkuntza komunitateak *Amesten dugun jolastokia eraikitzen* prozesua martxan ipini zuen 2018an. Iazko udal hauteskundeetan izandako gobernu aldaketaren ondorioz, guraso talde batek proiektua "geldi" dagoela salatu du. "Dirurik ez dagoela esan digute udalean, baina guri aitzakia dela iruditzen zaigu, udalaren borondate falta argia", adierazi dute.

Prozesua parte-hartzailea izan zen eta lau fasetan banatu zuten. "Egungo patioaren eredia 80ko hamarkadakoa da eta beste era bateko beharrezan batzuk betetzeko diseinatu dago. Horiak identifikatu eta gero, beharrezanok bete ahal izateko diseinatu behar da", azaldu du Alaitz Urien jolastokiaren aldeko batzarreko kidea. Proiektua hirugarren fasean geratu da blokeatuta. Egoera honen aurrean,

gurasoek kalera atera dituzte euren kezkek. Besteak beste, elkarretaratzeak, batzarrak eta sinadura bilketa abiatu dituzte; tartean, umeen "sinadura sinbolikoa". "Umeak ere oso inplikaturik egon dira proiektu osoan, eta ez da ohikoa eurei berba ematea eta entzutea", gaineratu du Iratxe Gorritxategik. Urien eta Gorritxategi Angel Blancogaz eta Saioa Rodriguezegaz batera daude batzarrak dinamizatzeko taldean.

Eguenetan elkarretaratzeak egiten hasi dira gurasoak, jolastokiaren alde

"Desblokeatu guran"

Udalak, bere aldetik, krisi ekonomikoagaz eta SR1 delako proiektua gauzatu ezinagaz lotu du bloke egoera. "Hileak daramatzagu jolastokia handitzeko proiektua aurrera ateratzeko alternatibak. Krisi ekonomikoak ondorioak izan



Ikasleak patioa diseinatzen.

Zaldibarko Udalaren berbetan, krisi ekonomikoaren ondorioz dago geldirik proiektua

ditu SR1 proiektuan. Jolastokiaren proiektua garatzeko, 1.743.000 euro ordaindu behar dira, eta, ondoren, 282.000 euro jolastokirako", azaldu du udalak ohar baten bitartez.

Urtarrileko osoko bilkura egin aurretik, dozenaka herritar ordu

erdiz bildu ziren udaletxe parean. Protesta egin zuten, zenbait tresnagaz zarata eginda. Aurrerantzean ere, antolatzen jarraitzeko asmoa iragarri dute gurasoek. Hilean behin batzarrak egingo dituzte, eta eguenero elkarretaratzeak egiteko asmoa agertu dute.

EAJren eta PSEren botoekin onartu dituzte aurrekontuak Zaldibarren

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

2020ko aurrekontu proposamenak udal gobernu osatzen duten alderdi bien botoen babesa eduki zuen. 3.257.000 euroko aurrekontua izango da. "Aurrekontu errealistak eta arduratsuak dira", azaldu zuen Jose Luis Maiztegi alkateak. EH Bilduk, oster, aurka bozkatu zuen. "Ez dugu babestuko Sanjoangoan kultur etxea egitea edo eskola ere-

Hainbat bizilagunek igogailu berriaren inguruko kezkek agertu zituzten

muaren urbanizazioa biltzen ez duen aurrekonturik", adierazi zuten. Besteak beste, hainbat eraikin publikotan eguzki plakak ipintzea, futbol zelaiko argiteria LED tekno-

logiagaz ordezkatzeta eta Zaldia plaza eta eliza ingurua lotuko dituen igogailu egitea dira aurrekontuak batzen dituen proiektuak.

Hain zuzen ere, igogailuaren proiektua dela-eta, dozena bat zaldibartar joan zen osoko bilkurara, euren desadostasuna agertzeko asmoagaz. Besteak beste, informazio eza salatu zuten, eta euren dudak agertu zituzten.



Zaldibarko Alde Zaharra.

Abadiñarren ia %10ek eman dute euren iritzia aurrekontuei buruz

Zebrabide argiztatuak ipintzeko proposamena izan da 2020ko aurrekontuetan sartzeko aukerarik bozkatuena

ABADIÑO • A.M.

Abadiñoko Udala pozik agertu da 2020ko aurrekontuen prozesu parte-hartzaileak izan duen hareragaz. "Bozketaren azkenengo fasean, 614 lagunek parte hartu dute, parte hartu zezaketen abadiñarren %10ek. Udalak lehenengoz aurrera eraman duen programa bat izateko, oso erantzun ona da", azaldu du Ana Gomez

gura dutela erakutsi dute abadiñarrek", dio Unzalu Salterain EH Bilduko zinegotziak.

Parte-hartze ordenantza

Alderdi subiranistaren ustetan, herritarren parte-hartze maila zabalagoa izan behar zen, eta, horretarako, beharrezkoa ikusten du parte-hartze ordenantza bat eratzea. "Gobernantza eredu berriak behar dira. Jada ez da nahikoa herritarrentzat lan egitea, herritarrekin lan egin behar da; komunikazioak joan-etorrikoa izan behar du", azaldu du Salterainek. Hain zuzen ere, ekarpen hori parte-hartze batzordean eginda dagoela ere nabarmendu gura izan du zinegotziak. Irizpideak ezartzeaz gainera, errekurso gehiago bideratu behar dira, Abadiñoko EH Bilduren ustetan. "Herritarrek emandako erantzunak gaintu egin du udala, eta, hori dela-eta, hurrengoari begira beharrezan hastea komeni da", adierazi dute.

Bozketaren azken fasean 614 abadiñarrek parte hartu dutela nabarmendu du oposizioak ere

Gobernantza eta Herritarren Partaidetza arloko zinegotziak. Herritar horiek 35 proposamen egin zituzten, eta, horien artean, zebrabide argiztatuak ipintzeko proposamena izan da bozkatuena. EH Bildu ere pozik agertu da herritarrek emandako erantzunagaz. "Udalaren jardunean parte hartu

San Antonioko auzotarren mugikortasuna errazteko, goi-pasabide bat eta errotonda bat egingo dituzte

N-634 errepide ondoan bizi direnen segurtasuna hobetu gura dute. Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatuko ditu lanik gehienak



Hainbat izan dira N-634 errepidearen bazterrean bizi diren herritarrek egindako mobilizazioak.

ZORNOTZA • J.D / E.H.

Badirudi San Antonio auzoko bizilagunen kexek eta eskariek arrastoa utzi dutela. Bizkaiko Foru Aldundiak Eubatik Ibarra bitarteko bide zati bat konpontzeko asmoa du, eta,

lan horien barruan, San Antonio auzoaren alde biak goi-pasabide batez lotzea eta trafikoa arintzeko errotonda bat egitea aurreikusitu du. Horri gehituko zaizkio, besteak beste, alde banatan espaloia egitea,

bazterbideak hobetzea eta Zubieta industrialderako sarbidea hobetzea. Oraindino sinatu barik dago Aldundiaren eta Zornotzako Udalaren arteko hitzarmena, baina Andoni Agirrebeitia alkateak aurreratu

duenez, lanak udazkenean hasita eta dena ondo bidean, 10 hilabetez amaitzea dago aurreikusita. Guztira, Aldundiak 6.500.000 euro baliatuko lituzke proiektu osoa aurrera eramateko, Eubatik Ibarrarako

tartea berritzeko, eta Zornotzako Udalak 200.000 euroko ekarpena egingo lioke horri.

"Herritarrei esker"

Zornotzako EH Bilduk San Antonioko auzotarren mobilizazioen garrantzia nabarmendu du. "Herritarren mobilizazioek mugiarazi dituzte udala eta Aldundia. Horrek ekarri du akordioa", azpimarratu du Ander Uriarte bozeramaileak. Gogora ekarri du, gainera, iraga-

EH Bildu: "Herritarren mobilizazioari eskerrak mugitu dira udala eta Foru Aldundia"

nean antzerako protestak egon zirela Berna auzoan ere, eta hainbat lorpen auzotarren mobilizazioei eskerrak egin zirela.

San Antonioko auzotarretariko batzuk etortzeko den proiektuagaz pozik daudela dio Uriartek, baina beste hainbat zalantzi ere badagoela. "Proiektua ez da nahikoa izango. Hori uste dugu, eta hainbat auzotarrek ere horixe komentatu digute", esan du. Edozelan ere, Uriartek adierazi du Zornotzako EH Bilduko eta Bizkaiko Batzar Nagusietako kideak laguntzeko prest daudela arazoari konponbidea emateko.

Zornotzako Urgozo kiroldegi berriak saskibaloikantxa eta erabilera anitzeko gela izango ditu

Zornotzako Udalak kiroldegi berria eraikitzeko egitasmoa onartu du. Lanak aurtengo azken hiruhilekoan hasita aurreikusitu dute. 2020ko udarako prest izatea gura dute

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Kiroldegiak espazio nagusi bi izango ditu. Horietariko batean saskibaloikantxa bat egingo dute, 1.066 jarlekuz osatutako harmailekin. Beste 1.300 laguntzat ere egongo da lekua, zutunak. Zornotza Saskibaloiklubaren etxe berria izango da Urgozo. Espazio horrek, gainera, kontzertuak eta hedadura han-

diko bestelako ekitaldiak hartzeko ere balioko du. Bestalde, bigarren espazioa erabilera anitzeko izango da eta herriko kirol zein kultur elkarteei bideratuta egongo da.

Beharriaren azterketa

Proiektua EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu dute. EH

Bilduk eta Hiri Ekimenak kontra egin dute. Larreako kiroldegia "txiki" geratu dela eta saskibaloirako azpiegitura berri bat behar zela onartu arren, "beharrizan handia" duten beste kirol mota batzuk daudela eta horiei "modu zabalean" heldu beharko litzaiekeela uste dute EH Bilduk eta Hiri Ekimenak.



Kiroldegi berriak honako itxura hau izango du.

Ur-jolasen eremua berritzeko lanak hasi dituzte Zornotzako Kirolganen

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Hainbat txirrista, erabiltzaileei gaintetik ura botako dien ontzi bat, ur-kanoi bat, kupula bat, ur-kanpai bat eta helikoptero baten helizeen itxura duen altuera handiko dorre bat ipiniko dituzte Kirolganeko aire zabaleko eremuan. Umeen "irudimena, trebezia eta motritzitatea" garatzen laguntzeko pentsatutako elementuak izango direla azaldu du Zornotzako Udalak. Lanak asteon hasi dituzte, eta, guztira, 350.000 euroko inbertsioa egingo dute. 311 metro karratuko arloa eraberrituko dute.



Berrizen Podemosek idi probetarako diru-laguntzarik ez emateko eskatu du

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herriko jaietan zein urtean zehar egiten diren idi probetarako diru-laguntzarik ez emateko eskatu zuen Berrizen Podemoseko David Jimenok azken osoko bilkuran. "Onartezina da animalienaganako tratua txarrak izaten diren ekimen bati diru-laguntza ematea", salatu zuen Jimenok. Gainera, "animalienaganako errespetua" eta gaiagaz sentsibilizazioa izatea eskatzen dutela esan zuen. Hala ere, mozioa ez zen onartu, EAJk kontrako sei boto eman zituen eta.

EAJkoak beti idi proben alde azaldu direla eta aurtengo aurrekontuetan ere diru atal bat horretara bideratu dutela adierazi zuen Orlan Isoird Berrizko alkateak. "Gainera, herri kirol federazioak eta legeak ere babestu dituzte idi probak. Horrez gainera, animaliak zaintzeko neurriak ere hartu dira. Beraz, geureagaz jarraituko dugu", gaineratu du.

EH Bilduko Josu Albizurik adierazi zuen ez daudela ados diru publikoagaz horrelako ekimenak finantzatzegaz.



Mocker's.

Hareek denporak!

Mocker's: hamarkada bat ametsen errepidean bidaiatzen

Otsailaren 5ean hamarkada bat bete da Ritxik, Asierrek eta Gartzik lehenengo entsegu egin zutenetik. Hamar urte, Mocker's "misteriorik barik" jaio zela: "Rocka gustuko duten hiru gazte batzea ez da gatxa. Elkartu, proba egin eta ondo sentitu ginenez, aurrera egin genuen", adierazi zioten ANBOTOri orduko elkarrizketa batean. Eta horrela jarraitu dute gaur arte. Ordutik hona,

dozenaka kontzertu eskaini dituzte, ehunka bidelagun egin eta hiru disko kaleratu. Hain zuzen ere, *Oreka Ahula* euren hirugarren lana aurkezten dabilta azken hiletan. Gidabaimenik ez zutela hasi ziren kontzertuak eskaintzen, eta, inurri lana eginez, euren bidea urratzen dabilta Euskal Herriko (eta Espainiar estatuko, zergatik ez) musika eszenan.

Lau hankako mahaia

Jesica Ruiz
PSE-EE



Nagusi desberdinak elkartzeko

Beste herri eta lurraldeetan gertatzen ari den bezala, Durangon ere nagusiak gero eta gehiago dira eta horrela izaten jarraituko du, bizi iraupena gero eta luzeagoa delako.

Gure nagusiak funtsezkoak dira gazteei balioak transmititzeko orduan, ondare kultural eta sozial baten zaindaria gisa.

Gaur egun, nagusien artean bi talde oso desberdin ditugu:

Alde batetik, 80 urte baino gehiago dituzten 400 pertsona bakarrik bizi dira Durangon. Hauen bakardadea, segurtasuna eta autonomia indartzea izan behar da gure helburua. Durangoko Udala beti izan da erreferentzia gai honetan: mendekotasuna duten senide zaintzaileen laguntza zerbitzua (Zaindu programa 2011. urtean hasita), ke detektagailuen instalakuntza (2010), jantoki zerbitzua (2016) nagusientzako etxez etxeko janari zerbitzua (2019). Gai hauean ezin dugu lorik hartu.

Beste alde batetik, badaukagu 4. adin lez izendatzen direnak. Agenda beti topera daukate batzuek: bidaiatu egiten dute, irteera kulturala edo mendi irteera egiten dute, hitzaldi bat prestatzen dute edo kooperante lanetan ibiltzen dira. Ekintza horiek egiteko, instituzioen laguntza behar dute, noski. Gizartean duten eginkizun aktiboa bizibilizatzea eta agerian uztea dira beraien eskaerak.

Bi talde handi hauek ere ezin dugu ahaztu. Guztion lana izan behar da eguneroko lana elkartzeko eta indartzeko duten elkarretaratze espazioak sortzea. Jakinduria handia da nagusien esperientzia, eta baita belaunaldi gazteak gidatzeko tresna oso baliagarria ere. Zaindu dezagun.

Durungaldea asteen

Xabi Aburruzaga trikitilariaren 'Bost' diskoa aurkeztuko dute bihar Mainondoko gimnasioan

Otxandio | Xabi Aburruzaga trikitilariaren *Bost* diskoa aurkeztuko dute, bihar, 19:30ean, Mainondoko gimnasioan. Portugaleteko musikariak kontzertua eskainiko du bere azken lana aurkezteko. Aurkezpen ekitaldian, Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolariek ere parte hartuko dute. Baita Carlos Pradera artistak ere.

Greba eskubidea urratzeagatik Lince enpresa kondenatu dutela dio ELAK

Elorrio | Metalgintzako langileen greba eskubidea urratzearen, Euskadiko Auzitegi Gorenak Elorrioko Lince enpresa zigortu duela jakinarazi du ELAK prentsa ohar baten bitartez. "Enpresak hainbat neurri hartu zituen greba efekturik barik uzteko, eta langileen greba eskubidea urratu zuten", adierazi dute idatzian.

Jesuitak ikastetxeko sei ikasle European Youth Parliament topaketan izan dira

Durango | Urtarrilaren amaieran Bilboko Bilborock aretoan egindako European Youth Parliament topaketan, Durangoko Jesuitak ikastetxeko sei kidek parte hartu zuten. Hauetxe izan ziren ikastetxeko gazte parte-hartzaileak: Pablo Quesada, Irati Ortuondo, Ariane Fidalgo, Emilio Arriola, Ane Casado eta Peru Lasuen



Elixaldeko jolasguneko zorua eta jolasak berri dituzte Iurretan

Iurreta | Iurretako Udalak 9.700 euroko inbertsioa egin du Elixaldeko jolasguneko zorua eta jolasak berritzeko. Joan zen abenduan, Amilburuko jolasgunea ere berri zuten, udal ordezkariak azaldu dutenez. Horretarako, 71.000 euro erabili zituzten. Guztiz eraberritu zuten ingurua, eta zortzi jolas berri ipini zituzten. Aurretik, Maiztegi eskolako jolasgunean jolas berri bi ipini zituen udalak, eta zoru berria ere bai. Udako oporraldia aprobeztatu zuten lan horiek egiteko, eta 17.300 euroko aurrekontua izan zuten.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • N ortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tariteak barne).

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

IRITSI GARA (GO/AZEN 1)
Jasone Osoro (Alai)

BASA
Miren Amuriza (Elkar)

MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

Engainariak

Txatal edo puska hauetatik erdiak iruditik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Labirintoa

sekuentzia



Lagundu azerikumeari azeritegira heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esatera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tartekak dira.


	U	R	T	A	N	P	E	H	E	G	L	I			
	O	S	E	R	S	Q	B	E	H	S	E	G			
T	B	O	S	E	R	I	L	A	N	E	H	S	E	G	
E	A	H	A	J	E	N	U	O	E	B	R	S	O	R	
I	T	A	S	U	Z	A	E	Z	I	O	T	S	U	T	
B	E	H	U	S	A	B	U	E	B	U	T	I	G	O	Z
I	O	A	N	A	B	L	O	R	A	O	T	R	U	E	
A	B	U	H	K	E	L	D	D	D	D	E	M	N		
B	E	C	U	A	H	L	O	E	I	A	G	I	D	B	
R	R	A	O	A	H	L	O	E	R	A	I	B	D	A	
R	E	I	E	C	J	L	U	U	T	O	S	U			

Idatzi hemen esaldia. _____



Sirena

Osa ezazu sudokua, SIRENA hitzak dituen hizkiak erabiliz (S, I, R, E, N eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Zer arraio egiten ote dute bi izar horiek nire bularretan...



Mezu ezkutua

Jar ezazu ikonotxo bakoitzaren azpian, hari dagokion hizkia. .SIRENA esateko beste bi hitz osatuko dituzu.



www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiorri)

Sartu www.plazanbazan.eus web atarian eta denbora-pasa hauen erantzunekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.



enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio

DURANGON ORDUKAKO TXOKO ALOKAIURUA

688 864 975
info@zuretxokoa.com

www.zuretxokoa.com

Komentukale 23 behea, 5. esk. • 48.200 Durango - BIZKAIA





AKADantz, kale dantzen lehiaketa

Otsailaren 8an, AKADantz lehiaketa egingo da Arriola antzokian. Lehiaketa honek European maila handia lortu duen Break On Stage jaialdian parte hartzeko aukera ematen du. Tokiko hiri-dantza sustatzeko helburuagaz sortuzen AKADantz, eta 12. aldia du

dagoeneko. Dantzari gazteei eta amateur mailan ari direnei zabaldua dago.

Funky, house, urban dance, hip-hop, break-dance, locking, popping... hiri-dantzarekiko zaletasun bera duten gazte askoren topaleku bihurtu da AKA-



Rio de Oro elkagai bilketa egingo du errefuxiatu sahararrei eroateko

ELKARTASUNA | Rio de Oro elkarteak saharar errefuxiatuei laguntzeko antolatzen duen Elkartasun Karabanagaz bat egitera deitu ditu herritarrak. Gaur eta bihar Abadiñoeko Eroski saltoki

handian egongo direla azaldu dute, elkagai bilketa egiteko eta saharar errefuxiatuek bizi duten egoerari buruzko informazioa emateko. Otsailaren 14an eta 15ean ere han izango dira Rio de

Oro elkartekoak. Arroza, pasta, lekaleak, azukrea, hegazuza eta sardinak oliotan, eta konpresak batuko dituzte.

Herritarrek aste osoan zehar dute aukera elkagai bilketan parte hartzeko, Abadiñoeko saltoki handian eta Durangoko Alde Zaharreko Eroskin. Herritarren parte-hartzeak duen garrantzia nabarmendu du Rio de Oro.

Otsailaren 7an

ABADIÑO sanblasak
Idi probak, 21:00etan,
probalekuan.

DURANGO musika
Bertsio gaua, 20:00etan,
Sorginola gaztetxean.

DURANGO musika
Musik On: Animales
Muertos + State Alerta
+ Peligro 66, 21:30ean,
Plateruena kafe antzokian.

DURANGO musika
Dj Mister, 22:00etan,
Txoria Nuen Maite
tabernan.

ELORRIO musika
Telmo Trenor + Sua,
22:00etan Elorrioko
Ateneoan.

ZORNOTZA antzerkia
'Roman y Julieta'
(Borobil Teatro),
20:15ean, Zornotza
Aretoan.

Otsailaren 8an

ABADIÑO sanblasak
Umeendako jolasak,
Zelaietako frontoian:
12:30etik 14:30era eta
16:30etik 19:30era.
Idi probak, 21:00etan,
probalekuan.

BERRIZ musika
Siberya + Ikarass,
20:00etan, Kultur
Etxean. Kontzertua 360
HZuzenean.

DURANGO dantza
'Gorpuztu' ikuskizuna
(Doos Colectivo),
19:00etan, San Agustin
kulturugunean.

Otsailaren 8tik 9ra

DURANGO azoka
Berdeago: 'Nature,
kontsumo arduratsuaren
azoka', Landako Gunean.
Sarrera dohainik. Zapatuan,
10:00etatik 21:00etara,
eta domekan, 10:00etatik
20:00etara.



Dantz, eta taldeen artean harremantzeko eta eza-gutza partekatzeko aukera izaten dute. Juniorrak 13:00etan lehiatuko dira; bikoteak eta absolutuak 16:00etan, eta, 19:00etan dantza esperimentalean arituko dira.

Silvia Triguerosi buruzko 'Tor' dokumentala ikusgai

IKUS-ENTZUNEZKOA | Iñaki eta Mikel Urresti anaiek Silvia Triguerosi buruz egindako 'Tor' dokumentala aurkeztuko dute Abadiñon, otsailaren 13an, 19:00etan. Txanporta kultur etxean egingo duten ekitaldira Silvia Trigueros bera eta Iñaki Urresti gonbidatu dituzte.

Ikus-entzunezkoa 2018ko abenduan estreinatu zuten, Bilbao Mendi Film jaialdian, eta hainbat sari jaso ditu. Izabako Ukerdi Mountain Film jaialdian gidoirik onenaren saria lortu zuen iaz. Argentinako Usuhaia jaialdian, epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen abuztuan.



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi kultura@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Otsailaren 9an

ABADIÑO sanblasak San Blas 2020 Pilota Txapelketako eskuz binakako finala, 10:30ean, Tornosolo trinketean. Ondoren, **desafioa banaka: Asier Aspuru (Bizkaia)-(Iparralde)** eta desafioa binaka: **E.Ziarrusta / Iugartte-(Iparralde)**. **'Amarru' ikuskizuna (Tor Magoa)**, 16:00etan eta 18:00etan, Txanporta kultur etxean. **Idi probak**, 18:00etan, probalekuan.

Otsailaren 10ean

ABADIÑO sanblasak Idi probak, 17:00etan eta 22:00etan, probalekuan. Ondoren, sari banaketa.

DURANGO jardunaldia Familientzako elikadura eskola Berton Bertokoak antolatuta: 'Nork erabakitzen du jaten duguna?', 17:30etik 19:00etara, Zabalarra eskolan.

Otsailaren 11n

ZORNOTZA zinekluba KINE Zinekluba: 'Sieranevada', 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 12an

ABADIÑO ipuinak Ines Bengoa ipuin kontalaria, 17:00etan (4-5 urteko umeentzat), Mediatekan. Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako neska-mutilentzat, 17:30ean.

ELORRIO zinekluba Hileko dokumentala: 'Chris el suizo', 19:30ean, Iturri kultur etxean.

Otsailaren 13an

DURANGO wikikedada Wikikedada, 16:00etan, Ibaizabal ikastolan. Andereak elkarteak antolatuta.

DURANGO izena ematea Programazioa eta robotika tailerrak, Bizenta Mogel udal liburutegian, otsailaren 19an hasita, LHko 5. eta 6. mailako ikasleentzat. Izena emateko azken eguna otsailaren 13a.

Otsailaren 14an

DURANGO musika Dj Hija del Nopal, 22:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan.

ELORRIO dantza 'Gaukoak' (Kukai dantza taldea), 20:30ean Arriola antzokian.

Otsaileko agenda	
7	LIBURUTEGIA Mintzoan kux-kux irakurketa kluba. 17:00 3-4 urtekoak / 18:00 5-7 urtekoak IUGAZTE ETXEGO 17:00 Sukaldaritza: San Blas opilak
8	ANDEREBIDE Sagardotegira irteera. 9:30 ean Maspen
9	OLABURU FRONTOIA 16:00-20:00 Igandeetan zabalik
11	LIBURUTEGIA Irakurketa kluba gaztelaniaz. 17:00 "100% basque" Itxaro borda ADINEKOEN ZERBITZUA AMANKOMUNAZGOA, NAGUSIEN ETXEA 17:00 Hitzaldia: Lapurretak eta iruzurrak LIBURUTEGIA Irakurketa kluba euskaraz. 18:30 "100% basque" Itxaro borda



IURRETA antzerkia 'Marierrauskin', 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Otsailaren 15ean

ABADIÑO sanblasak XXXII. Burduntziko Bildots Txapelketa, 09:00etan, probalekuaren alboan.
Bazkaria erretako bildotsekin, 14:00etan, probalekuan. Bazkarirako txartelak Errota kultur etxean eta Mediatekan ipiniko dituzte salgai, 15 euroan, otsailaren 10ean, 09:00etan.

Otsailaren 28ra arte

ELORRIO erakusketa 'Arima hondartua' (Jon Rodriguez Bilbaoren argazkiak), Iturri kultur etxean.

Zinea

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Turuleka oiloa**
barikua 7: 18:15
domeka 9: 17:00

:: Durango - ZUGAZA

• **Aves de presa**
barikua 7: 19:30/22:00
zapateria 8: 18:00/20:15/22:30
domeka 9: 17:30/20:00
astelehena 10: 18:30/21:00
martitzena 11: 20:00
eguaztena 12: 20:00

• **El escándalo**
barikua 7: 19:30/22:00
zapateria 8: 19:30/22:30
domeka 9: 18:30/20:45
astelehena 10: 18:30/21:00
martitzena 11: 20:00
eguaztena 12: 20:00

• **Adu**
barikua 7: 19:30/22:00
zapateria 8: 19:30/22:30
domeka 9: 18:30/20:45
astelehena 10: 18:30/21:00
martitzena 11: 20:00
eguaztena 12: 20:00

• **Lur eta Amets**
zapateria 8: 17:00
domeka 9: 16:30

• **Operación Panda**
zapateria 8: 17:00
domeka 9: 16:30

:: Elorrio - ARRIOLA

• **1917**
zapateria 8: 22:00
domeka 9: 20:00
astelehena 10: 20:00

• **Elkano. Lehen mundu bira**
domeka 9: 17:00

:: Zornotza - ARETOA

• **Jojo Rabbit**
zapateria 8: 19:30
astelehena 10: 20:15

• **Operación Panda**
zapateria 8: 17:00
domeka 9: 17:00

“Urte mordoa nabil kameralari lanetan, eta erronka berria zen niretzat websaila”

Durangoko Azokan estreinatu zuten 'Pikuak' websaila. Jone Novo durangarrak lan handia izan zuen kameraren atzealdean. Donostiako Tabakalera egin zuten bigarren proiektua, eta gehiago egitea itxaroten dute



Jone Novo Olea
'Pikuak' webserieko partaidea
Durango | 1982

DURANGO • IGOR GALARZA

Kameralari, argazki zuzendari, editore... Jone Novok lan ugari izan zuen 'Pikuak' euskarazko websailan. Durangoko Azokan estreinatuta, proiektuari jarraipena emateko asmoa dutela adierazi du Novok.

Zer istorio dakar 'Pikuak' websailak? Hiru neska gazte dira protagonistak, pisukideak direnak, hirurak ere oso desberdinak. Bat aktibista

feminista da; beste bat moderna eta hipster jarrera duena; eta hirugarrena yoga zalea, eta kanpotik jarrerarik lasaiena eduki dezakeena. Hiruren artean erlazio estua sortzen da, eta hirurak desberdinak izan arren, oso ondo konpontzen dira elkarrengatik. Pisukide modernoak aplikazio baten bitartez bikotekidea aurkituko du. Ondoren, hiru neskek eztabaida bat izango dute eta casting bat antolatzeari ekingo

diote, porno feministarako hautagaia aukeratzeko. Puntu komikoa du, euren hartu-emanak hortik jotzen du batzuetan. **Publikoarentzat amua izan daiteke garaikidea izatea?** Baietz esango nuke. Gaur egun bizi dugun egunerokotasuna ikusi daiteke. Gazteentzat interesgarriak diren gaiak jorratzen ditu *Pikuak*ek, eta ezkutuan dauden gaiak ikuspuntu feministatik ikustea lagundu dezake.

Kanta sorta handia dago.

Lagundu digun beste ezaugarrietariko bat da musika. Musika estilo asko bildu ditugu eta horietariko bakoitzak istorioaren norabidean asko laguntzen du, erritmoa eta dinamismoa emanez websailari. Musika garaikidea da batez ere, istorioetako gaiak lotura izan dezaten. Taldeek bazekiten aurrekontu txikia genuela, eta prest egon dira kolaboratzeko.

Maddi Castro zuzendariak websaila lantaldearen lana azpimarratu zuen, eta zu bertan zinen. Zelakoa izan da zuretzat beragaz lan egitea?

Urte mordoa nabil kameralari lanetan, eta erronka berria zen niretzat websaila. Maddi (Castro) lehendik ezagutzen nuen, baina ez asko. Geratzen hasi ginen, erreferentzia topatzen, zein kameragaz grabatu, eta abar. Sekulako lana izan da, eta egundoko esperientzia. Maddigaz lan egitea plazera zan da; uste dut talde ona osatu dugula.

Lan desberdinak izan dituzu. Zer izan da zailena zuretzat?

Kameralari aritu naiz, argazki zuzendari ere bai, eta grabaketan ondoren edizio lanak egin nituen. Zailena grabazio egunetan denbo-

“**Kameralari hasi nintzenean, emakume gutxi ginen inguruan. Orain ohituago gaude emakumeak ikustera**”

raz aritzea izan zen. Egun mugatu batzuk genituen grabazioak egiteko, eta eguraldiak baldintzatzen zuen sarri gure grabazioa.

Lantaldeko aurpegi printzipalak emakumeak izan zarete.

Pozgarria da, baina tristea ere bai, horretara ohituta ez gauden aldeetik. Oso positiboa izan zen guretzat. Mutilak ere badira proiektuaren parte, baina gehienak emakumeak ginen. Hiru pisukideak ere emakumeak dira. Igartzen da aldea, beste giro bat da, eta nabarmentzekoa da datua. Kameralari hasi nintzenean, emakume gutxi ginen inguruan. Orain ohituago gaude emakumeak ikustera ikus-entzunezko munduan, baina orain hamabi urte ez zen horrela. Inoiz berba egin dugu lagun artean "women power" eta abarrez, bai (barrez).

Bertsio gaua antolatu dute Sorginolan, entseguetarako lokala ezagutzera emateko

Musika festa barikuan izango da, 21:00etan hasita; hainbat taldek parte hartuko dute

MUSIKA • A.M.

Hainbat hilabete berau egokitzeko igaro eta gero, lehenengo taldeak hasi dira zarata ataritzen Sorginolako musika entsegu lokalean. Bariku honetarako, bertsio gaua antolatu dute, gazteak "eszenatoki gainera animatzeko aitzakia" lez. Hemendik At!, Kuraia, Silvia Perez Cruz, Rotten XIII, Gose, Kaos Etiliko, Gata Cattana, Radio Birdman, The Hives eta DJ Bull izango dira

Kuraia, Radio Birdman eta Silvia Perez Cruzen abestiak joko dituzte, besteak beste

bertsionatuko dituzten taldeak. 21:00etan hasiko dira kontzertuak.

Garajetik!-en hazia

Fundizio zaharreen biltzen diren artean, gazte musikariei erraztasunak eskaintzea izan da kezkarik nagusietariko bat hasieratik. "Durangon, gazteen musika talde geroago eta gutxiago zegoen, eta hori aldatzeko antolatu genuen Garajetik! jaialdia. Gero, entsegu lokalaren eraikuntza etorri da", adierazi dute. Sorginolako musika proiektura batzeko deia ere egin dute.



Bertsio gauko partaideak.

Osasun gida

anboto

Ginekologia
PSE: 93/18

mam ginekologia zentroa

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Optometria
PSE: 162/13

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

Podologia
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia klinika

Goiaz Murua kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez kol. zbk. 329

Kiropodia, onkopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefonoa: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA - PADI
HORTZ-ESTETIKA
HORTZ-ESKANERRA

{Muruetatorre, 2C blokea, behea} DURANGO
Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK


Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
arruaba@gmail.com

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Musik On elkarteak asteburu osoko jaialdia antolatu du bere lehenengo urteurrena ospatzeko

Barikuan eta zapatuan Plateruenean egingo den jaialdian punk doinuak nagusituko dira; zortzi taldek parte hartuko dute

MUSIKA • A.M.

Durangaldeko Musik On elkarteak urtebeteko ibilbidea ospatzeko jaialdia antolatu du asteburu honetarako. Batez ere, punk doinuak nagusituko dira Plateruenean, baina beste era bateko taldeek ere eskainiko dituzte kontzertuak.

Gaurko gaualdiko protagonistetarikoa bat State Alerta taldea izango da. 2016ean martxan hasi zirenetik, dozenaka kontzertu eskaini ditu Krisek, Txibillok eta Paulek osaturiko hirukoteak. Azkenaldian, euren bigarren lana izango dena grabatzen ere ibili dira abadiñarrak. Eurekin batera, Peligro 66 eta Animales Muertos taldeak arituko dira Plateruenean oholtza gainean. Lehenengo taldea Comando 9mm, Andanada 7 eta 37 Hostias taldeetan aritutako kideek osatzen dute; bigarrena Zaragozako talde mitikoa da (Natxo sortzailea dago bertan, Non Serviumeko Karlitos eta Niñogaz batera, besteak beste). Aurten zuzenean ikusteko aukera bakarrenetarikoa da Durangokoa.

Metal ukituak

Bestalde, zapatuko taldeek metal ukitu nabarmena izango dute. Durangaldeko Klown taldea arituko da, besteak beste. Duran-

galdeko metal taldea da Klown, eta iaz *Pelea por tu vida* diskoa kaleratu zuten. Eurekin batera, Eraso! zarauztarrak, AD, Holy Txala eta For The Glory taldeek

eskainiko dute kontzertua. Bi egunetan, 21:30ean hasiko dira emanaldiak. Sarrerak leihatilan bertan erosi daitezke, 15 euroan edo 25ean egun biko bonua.



State Alerta.

Gai librea

Fernan Ruiz Larringan
Euskaltzalea



Kartoia

Gogoan dut garai hura. Gai preziatua zen guretzat kartoia, eta han ibiltzen ginen lagun koardila fardeltxoak egin eta Olma fabrika zaharreko biltegira eroaten, pezeta batzuen truke. Zinera joatea eta martxanertan erregaliza erostea izaten baitzen domeka arratsaldeetako gure denbora-pasa. Handik urte batzuetara ikasi genuen birziklatzea hitza, eta beste asko ere bai.

Landakon Berdeago azoka. Hara noala, alde zaharrean bizi den ezaguna topatu dut; berarekin solasen geratu naiz. Gai interesgarriak landuko direlakoan hurreratu da, jakinminez. Askok ikasi daitekeela aitortu dit, hiztegia aberastu, teknologiak ingurumenean duen eragina, energia zelan kudeatu, zelan aurreztu eta abar. Edozelan ere, iruditu zaio han azaldutakoa urrun dagoela herritar xumeek dituzten beharretatik, profesionalak profesionalentzat egindako azoka omen da. Berrikuntza, ikerketa, jasangarritasuna..., berba potologiak berarentzat. Gertukoak ditu, ordea, pobrezia energetikoa, indarkeria, kartoizko ohea edo "hiru seme-alaba ditut eta langabezian nago" dioen kartoizko karteltxoak. Neguan hotzetik eta udan berotik babesteko hormak, zorua eta sabaia kartoiz forratutako bunkerra du bizileku. Kalerik kale ibili ohi da, martitzenetan, merkatariek gai preziatua ate ondora noiz aterako zain; hezetasunaz, kartoia bigundu eta hondatu egiten baita.

Kartoiaz bildu dituzten azokatik ateratako ikaspenak, ingurumenari buruzko kontzientzia hartzeko balio liezazkioke, eta etxera bueltatu da, pozik. Aste-buru honetan ere, hara joatea erabaki du.



Soroiz eta De la Cruz.

'Roman eta Julieta' antzezlanak beste maitasun istorio ezinezko bat dakar

Zornotza Aretoan izango da, gaur, 20:15ean; Anartz Zuazuak zuzendu du antzezlan

ANTZERKIGINTZA • A.M.

William Shakespearek maitasun istorio ezinezkoa idatzi zuen bere sasoian, eta Borobil antzerki taldeko Iñaki Rekartek beste maitasun istorio ezinezko bat idatzi du *Roman eta Julieta* antzezlanerako. Jose Ramon Soroiz da Roman, bizitzaren amaieran dagoen eta fisikoki ezindua den gizona; Tanya De la Cruz

da Julieta. Roman baino hogeita urte gazteagoa da Julieta, paperik gabeko emakume etorkina. Bien artean maitasun garra piztu da, baina Romanen seme-alabak gar hori amaten ahaleginduko dira, umore beltz dosi handiekin kontatutako istorioan. Ainhoa Aierbe, Asier Sota eta Alazne Etxeberria dira gainerako aktoreak.

OLA
JAUREGI

Hotel-Jatetxea
Ongi etorri!

Kurutziaga kalea, 52 Durango · Tel.: 946 200 864
info@olajauregi.com · www.olajauregi.com




MIKELDI
TABERNA



Kalebarria 7 - Durango (Bizkaia) · Tel.: 94 407 39 88

**Durungaldeko azken
albisteak jaso gura
dituzu?**



**Batu
Anbotoko
whatsapp
taldera**

Bidali ALTA


688 635 041

telefono zenbakira



Izan zaitetz berriemaile ere.

Bidali zure argazki eta bideoak



Diego Sarasketa Lacasa
Munduko salbamendu eta sorospen txapelketan arituko da.
Eibar (Durangon bizi da) | 1975

“Sarritan, gutxien itxaroten duzunean sortzen dira gehien asebetetzen zaituzten erronkak”

Diego Sarasketa abentura berri bat prestatzen dabil; irailean, munduko salbamendu eta sorospen txapelketan parte hartuko du Tabira Igeriketa Taldeko kideekin batera

KIROLA • JOSEBA DERTEANO

Diego Sarasketa farmazialaria da ogibidez, eta abentura zalea afizioz. Esaterako, 'Imparables' telebista saioagaz munduan zehar ibili da eta muturreko lasterketetan parte hartu du mendiko bizikletagaz. Erronka bat parean agertzen bazaio, esku biek heldu ohi dio eta horixe gertatu zaio, aurten, munduko sorospen eta salbamendu txapelketagaz.

Zelan sortu zen erronka berri hori?

Durangoko sorospen eskola daraman Gonzalo Diazek eta biok aspalditik elkar ezagutzen dugu. Bioi surf egitea gustatzen zaigu, eta horrela ezagutu genuen elkar, txikit. Orain hile batzuk hondartzan bat egin, eta master mailako munduko salbamendu eta sorospen txapelketan parte hartzeko asmoa zuela esan zidan, eta ea animatuko nintzen. "Goazen, ba!", esan nion.

Birritan pentsatu barik?

Tira, bizitzak buelta asko ematen du, eta inprobisazioari tokia egiten diozunean gauza zoragarriak sortu ohi dira. Horixe deskribitu dut nire bizitzan. Sarritan, gutxien itxaroten duzunean sortzen dira gehien

“

Intentsitate handiko entrenamenduak egin behar dira. Bihotza ehuneko ehuneko daramazu beti”

—

asebetzen zaituzten erronkak eta pozik handienak ematen dizkizutenak. *Imparables* telebista saioagaz ere berdín gertatu zitzaidan.

Zoroak dira, zoratzeko modukoak! Ni oso kirol aerobikoak eta esfortzu luzea eskatzen dutenak egiten ohituta nago. Salbamendua guztiz kirol desberdina da, oso esplosiboa. Teknika menderatzea ere garrantzitsua da; funtsezkoa, esango nuke. Egitera ohituta nengoen entrenamenduek ez dute balio, eta aldatu egin behar izan ditut. Gainera, proba mota bakoitzak bere entrenamendu propioa eskatzen du: salbatu behar duzunari zelan eutsi, soka uretara zelan bota, taulagaz uretara zelan sartu, arraunean zelan egin... gauza asko dira.

Beraz, ez da nahikoa igerian ondo jakitea.

Ez, ez. Nik igerian hamar kilometroko probak eginda ditut, baita Ironmanak edo Ultramanak ere, baina proba horietan guztietan iraupena da gakoa, eta nire burua horretara ohituta dago. Baina salbamenduan gakoa ez da iraupena, abiadura baino. Hori lortzeko, intentsitate handiko entrenamenduak egin behar dira. Bihotza ehuneko ehuneko daramazu beti.

Tabira Igeriketa Taldekoekin aritzen zara zure teknika hobetzen.

Ikustekoa da taldeko gazteak zelan entrenatzen diren eta zelan dabil-tzan. Maila itzela dute. Estatuan goi-goian dabilta eta seguru nago mundu osoan ere nabarmenduko dela bat baino gehiago. Gainera, Espainiako aurtengo salbamendu txapelketa Durangon lehiatuko da, maiatzaren 30ean, Tabira Igeriketa Taldeak antolatuta. Bertan parte hartzeko asmoa dut; master mailan, jakina.

Zer helburu izango dituzu Espainiako txapelketan eta mundukoan?

Espainiako txapelketa oso test ona izango da mundukorako zeintzuk aukera ditudan ikusteko. Dena dela, argi dut irailera arte iraungo duen ikasketa prozesu batean nagoela eta pausoz pauso joan behar dudala.

Hasieran aipatu duzu 'Imparables' saioko zure parte-hartzea ezustean izan zela. Zelan izan zen?

Marokora joan ginen, Titan De-

sert-en parte hartzera. Lehenengo etapan, hamargarren kilometrotik aurrera, taldetxo batean joan nintzen eta hantxe zihuan Santi Millan aktorea ere, bere lagunekin. Hurrengo egunean gauza bera gertatu zen. Jakina, maila antzerkoa genuenez, talde berean batzen ginen egunero. Eta miseria gorria igarotzen zabiltzanean, berdín dio nor den ezaguna eta nor ez, enpatia bat sortzen da. Modu horretara sortu zen hartu-eman. Harrezkero, telebista saio horri eskerrak munduko toki asko ezagutzeko aukera izan dut: Hego Amerika, Zeelanda Berria, Mexiko, Costa Rica... Hego Amerikako oso gomuta onak ditut, jendeak kalean geratzen gintuen gugaz argazkiak ateratzeko. Batez ere, Santi Millan zen izarra; oso pertsona ezaguna da han.

“

“Norbere mugak ezagutu behar dira. Gehiago kostatzen zait yoga egitea distantzia luzeko proba bat amaitzea baino”

—

Zein erronkari esango zenioke ezetz? Non dago zure muga?

Ez dakit, ba. Nire ustez, garrantzitsua da norbere mugak ezagutzea. Adibide bat: dudan malgutasunagatik, gehiago kostatzen zait yoga egitea distantzia luzeko proba bat amaitzea baino. Edozelan ere, nire helburua ez da mugak bilatzea. Niretzat kirola gozatzeko da, eta pentsamendu horren barruan bakoitza noraino heldu daitekeen ikustea. Dena ematen duen kirolaria gustura egon daiteke emaitza edozein dela ere. Helburu horregaz joango naiz Italiako munduko txapelketara ere. Ahalik eta ondoen prestatuko naiz hile hauetan, eta neure onena ematen ahaleginduko naiz proba guztietan.



Diego Sarasketa, Gonzalo Diaz eta Unai Urigoitiak munduko txapelketan parte hartuko dute, beste kirolari batzuekin batera.

Euskadiko kros txapelketa irabazita, Irene Loizate Europako duatloi txapelketa prestatzen hasiko da

Ikasketak direla eta, aste honetan hasiko du preskuntza, eta ezin izango du iazko sasoi puntuan heldu hitzordura



Majida Maayouf eta Irene Loizate, joan zen asteburuan helmugara sartzen. TXEBI ARRIAGA.

KROSA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen asteburuan Euskadiko kros txapelketa irabazita, Irene Loizate Europako duatloi txapelketara begira dago orain. Iaz, balentria handia eginda, txapelkun geratu zen Errumanian. Baina, aurten, martxoaren 7an Punta Umbrian (Huelva, Andaluzia) izango den hitzorduan, oso gatz ikusten du lorpen hura berritza. Izan ere, joan zen asteburura arte, medikuntza ikasketei lotutako azterketak prestatzen ibili da buru-belarri, eta aste honetan hasiko da Europako hitzordura begirako entrenamendu serioak egiten. "Hilabete baino ez da geratzen. Ez naiz iazko sasoiaren helduko Europako txapelketara, eta ez dut uste irabazi dezakedanik. Behintzat, aurrealdean ibiltzea dut helburu", onartu du Loizatek.

Euskadikoa, talde lanari esker

Denboraldian bete-betea sartuta, sarritan ez da lorpenak merezi den moduan dastatzeko aukerarik izaten, baina joan zen asteburukoak aipamen berezia merezi du. Loizatek lehenengoz irabazi zuen Euskadiko kros txapelketa nagusien mailan, Gernikan. Talde lanean oinarritu zuen garaipena. Majida Maayouf taldekide marokarraren laguntzari eskerrak (erasoa jotzen, erritmoa markatzen...) lortu zuen Ainhoa Sanz gipuzkoarraren azkenengo urteetako hegemonia apurto eta txapela eskuratzea.

Eskualdeko beste korrikalari batzuek ere lortu zuten Euskadiko txapelkun geratzea: Aritz Villak 23 urtez azpikoan, eta Gontzal Murgoitio eta Izaro Aranburuk 20 urtez azpikoan.

Jokaldia

Oihana Azkorbebeitia
Urizar
Mendi lasterketak



Dortsalak agortuta

Zegama-Aizkorri mendi lasterketari dagokionez, beste errekor bat apurto da aurten: 12.566 lagunek eman dute izena parte hartzeko (iaz 10.500 inguru apuntatu ziren). Harrigarria! 225 dortsalen zozketan sartu dira denak, eta horrek esan nahi du 55 lagunetik bati baino ez zaiola dortsala egokituko. Maratoia bera amaitzea baino zailagoa ematen du parte hartu ahal izatea, ezta?

Goardia Suzien lasterketan ere, beste horrenbeste. 375 korrikalarik badute dagoeneko dortsala, baina 976 kanpoan geratu dira. Itxarote-zerrendan daude.

Baina mendiko lasterketarik gehienetan ez da zozketarik egiten. Denbora tarte bat ematen dute apuntatzeko, eta inskripzio orria betetzen duten lehenengoek lortzen dute dortsala. Aurreko domekan, esaterako, Arrasate-Udalatx mendi lasterketarako inskripzio epea zabaldu zen, goizeko hamarretan, eta eguerdirako agortuta zeuden jada dortsalak. Aloiñako Igoerarako ere beste horrenbeste gertatuko da, eta Oñatiko karreran parte hartu nahi dutenek adi ibili beharko dute. Otsailaren 8a da izena emateko lehenengo eguna, eta seguru nago azkena ere izango dela.

Partaidetzari buruz, beste datu esanguratsu bat Gernikako Etxera Trail probak eman zuten. Euskal preso eta iheslariak etxeratzearen alde egiten den proba da eta 1.000 lagun baino gehiago egon ginen lasterketa eta martxak kontuan hartuz gero. Lagun asko, zorionez. Baina nahiko nuke datoren urtean inork ere dortsalik ez ipintzea. Ez agortu direlako. Etxera Trail egiten bada, preso eta iheslariak etxean ez dauden seinale delako.

Asteko kirolaria

"Espainiako txapelketak beste mundu bat dira; helburua ahalik eta ondoen egitea da"

Aritz Villa abadiñarra onena izan da Bizkaiko eta Euskadiko 23 urtez azpiko txapelketetan

Aritz Villa korrikalari abadiñarraren aurtengo denboraldia oparoa izaten ari da. Hamabost eguneko epean, Bizkaiko eta Euskadiko kros txapelketak irabazi ditu Scorpio taldeko korrikalariak.

Euskadiko kros txapelketan garaipena lortu berri duzu 23 urtez azpiko mailan. Pozik zaude lortutakoagaz?

Pozarren nago, bai. Egia esan, ez nuen irabaztea itxaroten, baina lan txukuna egiteko esperantza nuen. Gainera, jakinda June Arbeo ez zela izango, podiumaren borroka horretan ibili nintekela uste nuen. Baina hortik eta irabaztera, alde handia dago.

Maila absolutuan hamargarren gelditu zinen. Itxaroten zenuen emaitza izan da?

Ez nuen itxaroten hain aurrean sartzea. Hamargarren postua ondo dagoela uste dut. Orain urte batzuk maila absolutuan Euskadiko Txapelketa batean hamar onenen artean egongo nintzela esan balidate, ez nuen sinetsiko.


Orain pare bat aste Berrizen jokatutako Bizkaiko Txapelketa ere irabazi zenuen. Denboraldi borobila daramazula esan daiteke.

Lehenengo krosagaz nahiko txarto hasi nintzen. Zornotzan izan genuen denboraldiko lehenengoa, eta ez nintzen gustura gelditu. Hurrengo lasterketetara beldur apur

bategaz joan nintzen, forman ez nengoela uste nuen eta. Baina gero guztiak ondo joan dira: Elgoibarkoa, Berrizkoa, Amurriokoa... Beraz, kros denboraldia nahiko borobila izan dela esan dezaket, bai.

Zeintzuk dira Aritz Villaren hurrengo helburuak?

Euskadiko selekzioagaz Espainiako Txapelketara joango naiz, eta taldeagaz taldekako Espainiako Txapelketan parte hartuko dut. Emaitza ona lortzea ez da batere erraza izango, baina lan txukuna egiten ahaleginduko naiz. Espainiako Txapelketak beste mundu bat dira; helburua ahalik eta ondoen egitea da. Iaz, Scor-



ARITZ VILLA BESOY

Abadiño, Korrikalaria

pioagaz taldekako bigarren postua lortu genuen, eta selekzioagaz laugarren izan ginen. Beraz, polita litzateke aurten postu horiek hobetzea.

Iaztik Scorpio taldean zabilta. Nolatan Zaragozako talde batean?

June Arbeo eta biok Durangaldea Runningen genbiltzan. Juneri talde horretan sartzeko aukera eman zioten, eta gero, niri. Horrela erabaki genuen taldera batzea. Euren sarritan egoten ez garen arren, tratu ona dugu.

CERAMICAS
MACOBER
ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etortri eta ikusi*
Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

**Ibai Ondo**
Sarrailgintza • Burdindegia
**Geriza**
mantentze-lanak eta instalazioak
KOMUNITATEENTZAKO
MANTENTZE ZERBITZUA
SEGURTASUN KAMARAK
Iturriza, 10 • 946 824 489 • BERRIZ • ferreteriaibaiondo@gmail.com

BODEGUILLA


TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK EROSI

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Elorrio. Atiko polita alokatzen da Elorrión...50 m2...igogailua dauka. Te.: 631 12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Abadiño. Pisua hartuko nuke alokairuan Abadiñon. Te.: 699 17 40 23

Lana Formakuntza LAN ESKARIAK

ETXEKO LANAK

Etxeko lanak egiteko prest. Etxeko lanak egiteko prest dagoen 42 urteko neska naiz. Sukalde lanak eta garbiketa orokorra egiteko prest nago. Arduratsua eta lana ondo egitea gustuko duen pertsona naiz. Goizetan eta orduroko prezio arrazoizkoa. Deitu, xehetasun gehiago telefonoz. Durangaldean. Miren Bego. Te.: 649 36 54 01

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsua eta esperientzia handikoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gaez zein

egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Te.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Te.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Te.: 632 35 60 66

Nagusiak zaintzeko. Ni Maite naiz, San Fauston bizi naz, Durangon. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen eta sukalde lanetan. Goizez zein arratsalde lan egiten dezaket. 3 urtean egin dut lan zahar egoitza batean eta esperientzia daukat. Titulua ere badaukat Te.: 673 68 97 69

Haurrak zaindu. Arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Etxeko lanekin laguntzeko arazorik gabe. Urteetako esperientzia. Deitu lasai! Te.: 688 64 06 04

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Lan bila

nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan lan egiteko prest. Te.: 612 42 06 78

IRAKASKUNTZA

Klase Partikularrak Natur Zientzietan. DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasleei klase partikular pertsonalizatuak emateko prest nago. Biologia Gradua eta DBH eta Batxilergoan irakasle izateko Masterduna, ingeles C1 maila. Ikasleak, ikasketa teknikan, edozein zientziatiko eta matematikako irakasgaiekin lagun ditzaket. Durango eta inguruetan lan egingo nuke. Kontaktuan jartzeko: deitu edo Whatsapp idatzi Te.: 688 64 59 83 zenbakira.

Euskara Irakaslea. Euskal Filologia duen irakasle bat behar dut, C1 azterketa prestatzeko. Te.: 676 57 94 44

LAN ESKAINTZAK

ETXEKO LANAK

Umeak zaindu eta etxeko lanak egin. 59 urteko andra euskalduna umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest (Durangaldea) Urte askotako esperientzia eta erreferentziak. Arantza Te.: 636 44 82 11

PERTSONAK ZAINDU

Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 643 72 71 98 telefono zenbakira.

Pertsona nagusiak zaintzeko. Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon...ordu solteak, lanaldi osoa... Te.: 658 03 08 36

Anbotok banatzaileak behar ditu Abadiñon, Elorrión eta Iurretan

Banatzaileak behar dira barikuetan alea banatzeko. Beharrezkoa da euskaraz jakitea. Interesatuak deitu Te.: 665 71 09 31

PERTSONA HELDUA ZAINTEKO PERTSONA BAT BEHAR DA. Atauen baserri batean pertsona heldu bat zaintzeko lanaldi erdirako pertsona bat behar da, berehala hasteko. Kotxe propioa izatea

baldintza ezinbestekoa da. Te.: 653 74 49 88

IRAKASKUNTZA

IRAKASLE BEHARRA. Eskolaz kanpoko laguntza emateko pertsona bat behar dugu gure akademian. Ingelesa ondo jakitea ere baloratuko da. Te.: 686 81 02 03

Portugeseko klase partikularrak. Irakasle portugesa behar da klase partikularrak emateko Durangon. Te.: 678 29 11 67

Frantsesa praktikatzeko berbalagun bila nabil. Frantsesa ikasten ari naiz, eta antzeko interesa duen Durango inguruko norbaitekin harremanetan jarri nahiko nuke, elkarrekin hitz egiten mintzaira eta ulermena hobetzeko asmoz. Te.: 617 37 89 33

Klase partikularrak (LH/DBH). Lehen hezkuntzako edo DBHko 1go edo 2. mailako ikasleei edozein irakasgaietako lanak egiten laguntzeko edo azterketak prestatzeko prest nagoen 17 urteko neska bat naiz. Aurretik beste ume batzuekin lan egin dut. Orain, zientzia batxilergoko 2. maila egiten ari naiz. Informazio gehiago eskuratzeko, Te.: 651 30 62 34



ASIER SARASUA

ASTE HONETAN

YASER HAMED

DOAN

Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.



ttap
Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

Informazio gehiago:
ttap.eus



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n



Botikak

BARIKUA, 7 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2 - **DURANGO**
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 8 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

JAIO-ABENDIBAR
Errekakale 6. - **ELORRIO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 9 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 10 - 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 11 - 09:00-09:00

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 12 - 09:00-09:00

NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 13 - 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak



Zorionak Eihar. 12 urtien zenbat aldatu zarien!
Holan jarraitu. Mosu haundi bat



Urtarrilaren 24an Elenek 6 urte egin zituen eta otsailaren 2an Oinatzen 8 urte. Zorionak, bikote! Jarraitu horren alai. Mosu potolo bana zuen aitaren eta amaren partez.

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Gure mutilak 7 urte egiten ditu. Zorionak, Alize, aitaren eta amaren partez. Askoi maite zaitugu.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 13° / 7° ☁

DOMEKA ↓ 15° / 7° ☁

ASTELEHENA ↓ 17° / 8° ☁

MARTITZENA ↓ 15° / 7° ☁

EGUAZTENA ↓ 11° / 7° ☁

EGUENA ↓ 15° / 6° ☁

HIERRROS
RIEZU S.A.
burdinak eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131 - Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net

pedrojuan
JATETXEA

SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.682.62.46

“Badago eskaria baserriko ogia erosteko, baina kontsumoa ez doa gorantzza”

Izurtatik Mañariarako bidean, jende ugari hartzen du eskumatara bidegurutzean, ogia, txorizoa edo ortuariko produktuak erosteko. Goizaldetik arratsaldera arte egoten da han Jesus Garate izurtzarra, labea lagun duela

Jesus Garate Totorikaguena (Izurtza, 1971)
• Dendaria

AKUILUA • IGOR GALARZA

Ogia egiten du Jesus Garatek (Izurtza, 1971) bere anai-arrebekin, lehengusinagaz eta ilobekin batera aurrera daramaten dendan. Ez du bere burua okintzat hartzen, ortuariak, gazta eta beste hainbat produktu ere saltzen dituzte eta. Sei hamarkada baino gehiagoko historia duen denda jarduten dute ezagun egin duten baserriko ogia ekoizten, goizaldetik arratsaldera arte.

Berba bitan

Ardoa ala sagardoa
Aukeran, sagardoa

Ogia egiteko garrantzitsuenak
Maitasunez egitea

Labea ogia egiteko...
Gauzarik garrantzitsuenak

Hemendik 30 urtera...
Lanean egotea gura nuke

Ogia egin bitarteko abesti bat
Euskalduna, edozein

Lan dezente egingo duzu aste osoan...

Asteburuetan eta astelehenetan egiten dugu gehien, Gernikako asteleheneko merkatura joaten gara eta. Bestela, 200 bat ogi egiten ditugu egun arrunt batean.

Handia al da asteburuko eta aste bitarteko salmenten arteko aldea?

Aste bitarteko lau egunetan, 60 bat kilo irin erretzen ditugu, eta beste hiru egunetan, 300 bat kilo.

Alde ederra baserriko ogitik beste ogietara.

Baserriko ogia garestia dela diote. Gaur egun, ogiaren bolumenari begiratzen zaio, eta pisuan, proportzioan, baserriko ogia merkeagoa da besteekin alderatuta.

Hazi egin da baserriko ogiaren salerosketa?

Badago eskaria, bai, baina kontsumoa ez doa gorantzza, ez da gehiago saltzen. Egia esan, gu ez gara mugitzen etxeetara, ezta gura ere. Guk jendea etortzea gura dugu, denda lez funtzionatu, ditugun beste produktuak saldu ahal izateko. Ogia bakarrik gura duen bezeroa ez da gehien interesatzen zaiguna; txorizoa eta ortuariak ere saldu gura ditugu. Dendek ere proposatu izan digute inoiz, baina ezetz esaten diegu; gure bezeroak

badaki non gauden, eta dendetan saltzeak ez du esan gura gehiago salduko denik, baizik eta irabaziak zatitzea.

Zein adinetako jendea dator? Ohitura duena baino ez dator, ala gazteak ere badatoz?

Adin guztietako jendea dator, baina, egia esan, gazteek egunean bertan jateko

ogia erosten dutela, eta helduagoek ia aste oso-rako erosten dute asteburuetan.

Zenbat orduan lan egiten du?

zue egunero?

Esnatzen garenetik zabalik dago, eta hamar ordutik gora egiten ditugu hemen. Egun osoan martxan gabilta, baina zenbat unetan atsedena ere behar izaten dugu, bazkalorduan esaterako, eta bezero batzuk orduantxe etortzen dira. Batzuk kasualitatez etortzen dira, baina beste batzuek ohitura dute ordurik txarrean etortzeko. Gurata egiten dutela ematen du.

Horrelakoei ogirik eskasena eman orduan...

...egin izan dugu inoiz, ez pentsa!

Zenbat urte darama zabalik dendak?

Inork ere ez zuen zabaldu. Lehen, baserrietan, etxeetan, egiten zen ogia. Apurka ohitura galtzen joan zen heinean, gure gurasoek lanagaz jarraitzea erabaki zuten.

Dendak 63 bat urte darama zabalik.

Asko saldu zenuten Abadiñoko San Blas egunean?

Ez genuen itzelean saldu. Egundoko eguna egin zuen, eguzkitsua, eta jende asko ibili zen, baina ez genuen horrenbeste ere saldu. Gazta eta ogia paretsu saldu genituen, ogia apur bat gehiago. Bestela, jendegaz tratuan ibili ginen.



Lauhortza

Martin Loizate Sarrionandia Ikaslea



1980

Hamarkada bat estreinatu dugu ia konturatu ere egin gabe. Denborak esango du zer utziko duen historiara, baina urtea hasi berritan gogoratu ditugu ja hainbat efemeride, 80ko hamarkada intentsoaren lehenengo urteaz geroztik 40 igaro baitira.

Urtea hasi berria zen Xabier Amurizak bere lehenengo txapelketa nagusia irabazi zuenean. Aste berean Jimmy Carterrek Sobietar Batasunaren gaineko enbargoa aldarrikatu zuen; urtea amaitzerako Reaganek irabaziko zizkion hauteskundeak. Urte olinpikoa zen eta gerra hotzaren testuinguruan SESB eta AED izan ziren garaile Moskun.

Hainbat herrialdek oniritzia eman zioten Saharako Errepublikari, eta Eusko Legebiltzarra eratu zen Garai-koetxea lehendakari zela; Gasteiz izendatu zuten hiriburua. John Lennon hil zuen bere fan batek, eta urte horretan hilko ziren Bon Scott, Tito, Erich Fromm, Jean-Paul Sartre...

Gerra zikinaren hasieran, “Naparra” desagerrarazi zuen BVEek. Granada batek esku artean lehertuta hil zen Goio Olabarria Ispasterren, durangarra, Mataderokoa. “Nork ez du maite askatasuna?”, Hertzainak taldea entseatzeko ibiliko zen Gasteizen, Eskorbuto sortu zenerako, Euskal Rock Erradikalaren lehen akordeak. Hautsi da anphora, Lau-Bost... kaseteak eskuz esku. Jarrairen I. Kongresua, kultur mugimenduen beste loratze bat: irrati libreak, fanzineak... (Ikusi *Durango 80*, Unai Iturriaga & Bideografik).

Langabezia gorantz, heroinaren sarraskia, Donostiako Pub El Herton lehergai batek eztanda egin zuen, ETAk gerra deklaratu zion narkotrafikoari. Martin Zabaleta Everest gailurrera igo zen, Ikurrina, ETAko anagrama eta Nuklearrik Ez! banderarekin. Lemoizko zentralaren kontra konjuratu zen Euskal Herria, itzalketa masiboak, Iberdueroren lokalen okupazioak... zentrala martxan jartzeko beharrezko uranioa iristear ei zegoen.



merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena (urtean 50€)